




CAMPUS OF
INTERNATIONAL
EXCELLENCE



TAILER PRESENTZIALA

BIZIPEN TRAUTAMIKOETAKO BIKTIMEKIN LAN EGITEKO TRESNAK

Oinarria, labur:

Biktimizazio esperientzia traumatikoa mugarri bat da pertsona baten bizi historian. Bizipen traumatikoari esanahi berria emateko beharra biktima askorengan ematen da, bizipen hori bizi zikloan modu osasuntsu batean txerta dadin eta oinazeak haren erabaki guztiak baldintzatu ez ditzan. Garrantzitsua da horretarako esperientzia traumatikoen biktimei laguntzen dieten pertsonak laguntza hori emateko hainbat tresna ezagutzea.

Helburua:

Laguntza tresnak eskuratzea, bizipen biktimolari esanahi berria emateko eta biktimaren bizi memorian txertatzeko.

Gaiak:

1. Oinazearen eta sentitutako beste emozio batzuen entzute errukibera.
2. Erresonantziak, zuhaitz genealogikoan.
3. Idazkera terapeutikoa.
4. Doluan laguntzea eta erresilientzia tresnak.

Tailerraren iraupena:

- 2 orduko sarrera eta 8 orduko tailerra.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

CAMPUS OF
INTERNATIONAL
EXCELLENCE

Metodologia

- Bizipen tailerra.
- Ikaskuntza jardueran interaktibitatea eta dinamismoa lehenetsiko dira. Meditatzeko eta idazkera pertsonaleko dinamikak landu, eta biktimizazio larriko egoera erreal propioak edo profesionalak aztertuko dira.
- Gutxieneko parte hartzaile kopurua: 8 pertsona.
- Areto guztiz argia behar da, baliabide materialak izango dituen (pc + pantaila + bozgorailuak). Bertan, pertsonak biribilean esertzeko aukera izango dute, aulki erosoetan.
- Tailerra prestatzeko lanketa labur bat egin beharko dute parte hartzaileek.

Hautazkoa eta doakoa parte hartzaileentzat

Datak

- 2018ko apirila: 13-14 (ostiral arratsaldea eta larunbat goiza)

Lekua: Carlos Santamaria Zentroa, Gipuzkoako Campusa (Kriminologiaren Euskal Institutuaren egoitza): Elhuyar plaza 4 - 2 Donostia. Koordenadak: 43.308687287766155,-2.0110130310058594.

Ordutegia:

-Ostirala, apirilak 13:

.15:45-16:30 h. Gema Varona irakasleak, IVAC/KREIko zuzendari eta "Biktimekin lan egitea" (UPV/EHU) graduondokoaren zuzendariorde denak, ongietorria eta sarrera egingo du.

.16:30-20:30 h. Tailerra.

-Larunbata, apirilak 14: 10:00-14:00 hs Tailerra (jarraipena)



CAMPUS OF
INTERNATIONAL
EXCELLENCE

Irakasleak:

ALBERTO JOSE OLALDE ALTAREJOS:

- Doktorea, gizarte esku hartzean eta bitartekaritzan, gizarte langilea, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko irakaslea.
- Ikertzailea, justizia leheneratzailearen arloan. IVAC/KREIren Justizia Leheneratzailearen Teoria eta Praktika Laborategiko kidea.
- Esperientziaduna bitartekari gisa, Eusko Jaurlaritzaren familia eta zigor arloko bitartekaritzaren zerbitzu publikoetan (2003-2011). Bideratzailea, terrorismoko delituetako biktimen eta laidoztatzaileen arteko topaketa leheneratzaileetan.

MAR PUGA ARCOS

Zigor eta familia arloko bitartekaria. Euskadiko eta Kataluniako bitartekaritza judizialeko zerbitzu publikoak.

IVAC/KREIren Justizia Leheneratzailearen Teoria eta Praktika laborategiko kidea.

IZEN EMATEAK: BIDALI MEZU BAT, MARTXOAREN 8A BAINO LEHEN, gemmamaria.varona@ehu.eus helbidera.